

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN
JARDUERA MEMORIA

2016



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Argitaratzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Etika Batzordea

Argitalpena: 2017ko Azaroa

Argitarapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa

Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen

Zuzendaritza nagusia

Plaza Gipuzkoa z/g, 20004 Donostia

T. 943 11 39 60 · modernizazioa@gipuzkoa.eus

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea

Lege Gordailua: SS-1234-2017

ISBNa: 978-84-7907-772-3

SARRERA

Foru Gobernuaren Kontseiluak 2016ko martxoaren lean hartuta erabaki batez, onartu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema eta Foru Aldundiko kideen eta Gipuzkoako Foru Administrazioaren eta bere sektore publikoko Erakundeen goi mailako karguen eta parekatutako langileen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea (JJEK). Horren ostean, Erakundearen Etika Batzordea sortu zen 3/2016 Foru Dekretuaren bidez, eta haren kideak izendatu ziren 2016ko maiatzaren 3ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren Akordioaren bidez, Kode hori betetzearen berme organo gisa.

Memoria honek lehenengo urteko ibilbidea jaso nahi du (2016), Erakundearen Zuzentasun Sistemaren Berme Organoari dagokion atalaren e) puntuan ezarritakoari jarraiki. Era berean, memoria honek, aztertutako kasuak zehazteaz gain, JJEKren edukiaren interpretazioaren gaineko gomendio batzuk ematen ditu, bere edukia argitzeko eta eguneratzeko asmoz.

AURKIBIDEA

1- Testuingurua	7
2- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Etika Sistema	11
a) Foru Aldundiko kideen eta Gipuzkoako Foru Administrazioaren eta bere sektore publikoko Erakundeen goi mailako karguen eta parekatutako langileen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.....	12
b) Erakundearen Etika Batzordea	13
3- Sentsibilizazioa	17
a) Sentsibilizazio jardunaldiak	18
b) Web orria	20
4- Jasotako gaiak	21
a) Laburpena.....	22
b) Jorratutako gaiak.....	25
• 01/2016, bere Sailak jakinarazitako espediente baten aurrean bilkuran zinegotzi bezala egindako esku hartzeari buruzko kontsulta	25
• 02/2016, hizlari gisa parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruzko kontsulta	26
• 03/2016, senide batek Udalei eta Sozietate Publikoari zerbitzuak ematearen gaineko kontsulta	27
• 04/2016, lehendakaria senidea duen erakunde batekin hitzarmena sinatzeari buruzko kontsulta	29
• 05/2016, Administrazio Kontseilu bateko kide izendatzearen gaineko kontsulta.....	29
• 06/2016, objektibotasun balorea ez betetzea salatzea.....	31
5- Ezarpen gida	33

1. Testuingurua

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016ko martxoaren 1eko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren bidez onartutako Erakundearen Zuzentasun Sistema¹ euskal erakunde publikoek duela hamar urte garatzen ari diren etika eta eredugarritasunaren adibide garbia da.

XX. mendearen amaieran, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) zuzentasun esparruen ereduia (*integrity frameworks*) eraiki zuen, antolaketa testuinguru jakinetan zuzentasunaren kudeaketa bideragarri egiteko asmoz. Eredu horrek zenbait tresna, prozesu eta egitura hartzen zituen barne, hala nola, kode etikoak edo jokabide kodeak, eta heziketa ekintzak edota interes gatazken kudeaketa. Orobat, kode horiek kudeatzeko prozesuak edo bideak sortzearen alde egiten zen, eta, azken buruan, zuzentasun esparru horien oinarritzko pieza berme organoek osatzen zuten.

Gobernu onaren alorrean aurreratuenetako mendebaldeko herrialdeek urteak daramate euren azpiegitura etikoak indartzeko esfortzu ikaragarria egiten, zintzotasun kultura sortzeko, ustelkeria edo jarrera publiko ez egokiak ekiditeko eta herritarren konfiantza den erakunde ikusezin hori gotortzeko asmoz. Alde batera utzi ezin dugun legatua, apurtzen denean berreraikitzea oso zaila baita.

Beraz, ELGAK sustatu duen ildoari jarraikiz (baita funtzio publikoaren esparruan sustatu duenai ere) edo beste demokrazia aurreratu batzuek egin dutenaren ildotik, Euskal erakundeek ere pausu handiak eman dituzte norabide horretan. Botere publikoek Euskadin sustatutako zuzentasun politikak ez dira inoiz erreaktiboak izan, prebentziokoak baizik. Hori dela eta, Europako Batzordeak Erakundearen Kalitatearen alorrean lehenengo Autonomia Erkidego bezala kokatu du Euskadi 2012 eta 2014an egindako ikerketa ezberdinetan. Eta analisi horren adierazle garrantzitsuenetako bat erakundearen zuzentasuna zen. Ez da harritzekoa; gai publikoak jorratzean zuzentasuna euskal herriaren izateko moduaren parte baita. Horrela, zintzotasuna, seriotasuna eta elkartasua bezalako balioek Gipuzkoaren identitatearen ezaugarri izan behar dute, inoiz baino gehiago globalizazioa eta lehiakortasuna nagusi diren ingurune batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Erakundearen Zuzentasun Sistema klabe positiboan politika egin nahi duen jarduera publiko arduratsuen isla izan nahi du, kargu publikoen, zuzendarien eta foru langile publikoen jarrera publiko ezin hobetik abiatuta, erakundeak herritarren ikuspegitik legitimatzen dituen Gobernantza Etikora begira beti. Helburua Gipuzkoa eredugarria sortzea da, Lurraldeko erakunde eta erakunde publiko guztiak barne hartu behar dituen leloa.

Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean (JJEK) jasotako Balore eta Printzipioekin batera daude Jokabide Arauak, eduki etikoa dutenak, eta Jarduera Arauak, gardentasuna, datu irekiak, gizarte konpromisoa, burokratizazio eza, eta abar bezalako printzipioekin kudeaketa onaren jarduera zuzentaruak. Planteamendu berezia da, orain arte erakunde ezberdinek egindako beste kodeetan jorratu ez dena.

Erakundearen Zuzentasun Sistema aukeratzea foru kargu publikoen kasuan kultura etikoa sustatzen duen eredu bat eraikitzean, praktika txarren prebentzioan islatzen da, eta dilema etikoak sortzeko eta konpontzeko bide egokiak ezartzen dira, kexa edo salaketak gidatu ahal izatea, eta zalantza horiek guztiak zuzen erantzuten dituen berme organo bat -Erakundearen Etika Batzordea (EEB)- ezartzea.

Beraz, sistema berdingabea da, EEBaren osaketa berezia den bezala, kide gehienak kanpokoak dituen eta aginte eta Administrazio ezberdinen aitortza eta interesa lortu duena, eredu bezala ikusten dutenak.

Horrela Wolters Kluwer taldearen “El Consultor de los Ayuntamientos” aldizkari entzutetsuan aipatu zen (www.elconsultor.laley.es/Content/Documento.aspx?params=H-4sIAAAAAAAAEAMtMSbF1CTEAAiNjcyMDM7Wy1KLizPw8WyMDQzMDS0NTkEBmWqVL-fnJIZUGqbVpiTnEqAA_3cEE1AAAAWKE), M^a Concepción Campos Acuñaeren eskutik, eta erakundeen Aholkulari entzutetsua eta Unibertsitateko katedraduna den Rafael Jiménez Asensiok Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eraikuntzaren kasu aurreratu bezala aipatu du askotan (www.rafaeljimenezasensio.com).

Udalerrien Federazio katalanak gipuzkoar Sistemaren eredu jarraitu zuen bere kode etiko propioa egiteko, eta hori dela eta gonbidatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundia 2017ko otsailaren 3an egindako jardunaldi batera Kataluniako Administrazioaren ordezkari ugariaren aurrean aurkezteko.

2016an kongresu eta jardunaldi ugarietan ere aurkeztu da:

- Berrikuntza Publikoaren III. Kongresu Iberoamerikarra
www.congresonovagob.com/programa-2016
- Gobernu, Administrazio eta Politika Publikoen Nazioarteko VII. Kongresua
www.gigapp.org/index.php/congreso/congreso-2016/319-programa-gigapp2016
- Modernizazio eta Kalitatearen IX. Jardunaldiak
www.gigapp.org/index.php/congreso/congreso-2016/319-programa-gigapp2016

¹ www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-de-integridad

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Etika Sistema

a) Foru Aldundiko kideen eta Gipuzkoako Foru Administrazioaren eta bere sektore publikoko Erakundeen goi mailako karguen eta parekatutako langileen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren barruko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea (JJEK), foru kargu publikoen jokabide eta jardunbide arauen alorreko autoerregulazio mekanismoa da, hau da, Gobernu Kontseiluak modu askean izendatutako arduradun publikoak edo sektore publikoko erakundeetan gehieneko ardura karguak dituztenena. Beraz, JJEK ezartzeko eremua ondorengo kargu publikoetara edo euren sorrera arauan edo izendatzean aurrekoei parekatutakoetara hedatzen da:

- a) Diputatu nagusia eta foru diputatuak.
- b) Zuzendari nagusiaak.
- c) Foru sektore publikoko erakundeetako zuzendari eta gerenteak.
- d) Foru sozietate publikoetako Administrazio Kontseiluetako kideak.
- e) Foru Aldundira atxikitako kontsorzioetako gobernu organoetako kideak.
- f) Sorrera arauan edo izendatzean aurrekoei parekatutako kargu publiko guztiak.
- g) Aholkularitza funtzioak dituzten aldi baterako langileak.

Dagokion atxikipena izenpetzea derrigorrez egin behar da. Horretarako, izendatzetik hilabeteko epea egongo da.

JJEKren egiturak erakundearen zuzentasun baloreak eta balore horietako bakoitzari lotutako jokabide arauak barne hartzen ditu, eta bestetik, jokabide onaren edo Gobernantza Onaren printzipio batzuk sartu dira. Printzipio hauetako bakoitzari jokabide arau batzuk lotzen zaizkio, kudeaketa publikoaren eremuan foru kargu publikoen funtzio eta lanen jarduna gidatu behar dutenak.

Erakundearen zuzentasun baloreak euren jarrerren orientazio eta gida izan behar dute, jarduera publikoen garapenaren helburu eta baliabideak hautatzeko ere balio beharko dutela eta, hala badagokio, jarduera pribatuetan ere, horiek Erakundearen eragina izango badute. Kargu publikoen jarrera gidatu behar duten baloreak hauek dira:

- Ordezkaritza.
- Zuzentasuna.
- Eredugarritasuna.
- Zintzotasuna eta Interesik eza.
- Objektibotasuna.
- Profesionaltasuna.
- Eraginkortasuna.
- Bizikidetzeta eta Errespetua.

Era berean, JJEKk jokabide onaren printzipioak (edo Gobernantza Onarenak) aurkeztu ditu, foru kargu publikoek euren funtzioak betetzen dituzten erakundearen izaera berezitik sortutako zuzentzarau sorta direnak, foru politika publikoen kudeaketan eta

martxan jartzean jardunen orientazio eta gida izan behar dutenak. Helburua herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen duen erakunde errendimendua da.

- Lidergo konpartitua eta formaldatzailea.
- Gardentasuna.
- Datuen irekiera.
- Kudeaketa eta berrikuntza eredu berria.
- Euskararen sustapena eta erabilera.
- Kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka.
- Harreman gobernua eta herritarren entzute aktiboa.
- Kontuen aitorpena.

Azkenik, sistemak jokabide eta jokaera baloreak, printzipioak eta arauak sustatzeko pautak ezartzen ditu, berme organoa ezartzen du eta kontuen aitorpena, gardentasunaren ebaluazio eta sustapena nola egingo den adierazten du.

b) Erakundearen Etika Batzordea.

Martxoaren 1eko 3/2016 Foru dekretuaren bidez sortu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore publikoaren Erakundearen Etika Batzordea (EEB), kudeaketan etika publikoa egonkortzeko asmoz.

EEB hau berezia eta berritzailea da osaketari dagokionez. Aipatu Foru Dekretuaren 4. artikulua dio presidentzia eta idazkaritza osatzen duten pertsonen gain, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Foru Diputatuak eta Erregimen Juridikoko zuzendari nagusiak egiten dutena, 4 bokalak osatuko dutela; horietako bat Zuzendari nagusia edo asimilatutako maila duen Foru Aldundiko kargu publiko bat eta gainontzeko hirurak Foru Aldunditik kanpoko pertsonak, euren jardura profesionalean esperientzia eta ospe ona egiaztatzen dutenak eta izendatzeko momentuan Foru Administrazioarekin edo foru sektore publikoko gainontzeko erakundeekin lotura organikorik ez dutenak. Modu honetan bermatzen da haren izaera independentea.

Izendapena 2016ko maiatzaren 3ko Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez egin zen, eta horrelakoa zen:

Presidentea:

Imanol Lasa Zeberio, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatua.

Bokala:

Goizeder Manotas Rueda, Modernizazioa, Informazioaren Gizarterako Zerbitzu eta Sistemen zuzendari nagusia.

Bokala:

Juana María Goizueta Vértiz, EHUko Donostiako Zuzenbide Fakultateko Dekanoa.

Bokala:

Belén Altuna Lizaso, EHUKo Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateko Giza Baloreen eta Antropologiaren Filosofia Saileko irakaslea.

Bokala:

Gurutz Jáuregui Bereciartu, EHUKo Donostiako Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna.

Idazkaritza:

Luis Elícegui Mendizabal, Erregimen Juridikoko zuzendari nagusia.

2016ko maiatzaren 26an EEBren osaketa formala egin zen Diputatu Nagusiaren aurrean. Idazkariak hura osatzen duten bokalen izendapena eta Foru Gobernuako Kontseiluak Erakundearen Zuzentasun Sistema definitzen duten hartutako akordioak irakurri zituen.



EEBren aurkezpena, Foru Jauregia, 2016ko maiatzaren 26an.

Batzordearen helburua JJEKn ezarritako balore, printzipio eta jokaera arauak sustatu eta hedapena, barneratzea eta egoki betetzen direla bermatzea da.

Erakundearen Etika Batzordearen funtzioak hauek dira:

a) Kargu publikoek funtzioak burutzean jarrera ez egokien agerpen hipotetikoaren prebentzioa, modu horretan erakundearen irudia eta klima etikoa gordetzea.

b) Kargu publikoek planteatu ditzaketen kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea.

c) JJEKn jasotako balore, printzipio eta jokaera arauak ez betetzearen gainean jasotako kexa eta salaketak izapidetu eta ebaztea. Egiten dituen ebazpenek proposamen izaera eduki dezakete Foru Aldundiari edo foru sektore publikoaren gainontzeko erakundeen eskumena duten gobernu organoei, dagozkion akordioak hartzeko xedez.

d) Batzordearen jardueraren gaineko urteko txostena egin eta, hala badagokio, JJEKn ezarritako edukien edo egokitzat jotzen diren neurrien aldaketa proposatu.

e) JJEKren Ezarpen Gida egin eta onartzea proposatu. Bertan, urteko maiztasunarekin, jokabide arauak zehaztuko dira, Batzordeak ekitaldi bakoitzean hartzen joan dituen ziurtasun enpirikoetatik, kontsultetatik eta ebazpenetatik abiatuta.

f) Etika publikoan formazio eta gaitasun programak proposatu.

Funtzionamenduari dagokionez, ezarri da Batzordea sei hilabetean behin behintzat bilduko dela, Presidentziak Idazkaritzaren bidez deialdia egin ondoren. Edozelan ere, bilerara deituko da (aurrez aurrekoa edo birtuala) hura jakitea beharrezkoa den gai edo kontsulta bat dagoenean.

Kontsulta, kexa edo salaketa prozeduren izapidetzea bide elektronikoetatik egingo da, ahal dela. Hala ere, GFaren Erregistro zentrolean aurkeztu daitekeen inprimaki bat eginda eta kontsultak ahoz egiteko aukera ere aztertu da, eta horien edukia idatziz jasoko da.

2016an jasotako 6 gaiak bide elektronikoetatik heldu ziren, salaketaren kasuan aurretiko ahozko kontsulta egon bazen ere.

² 2016ko martxoaren 10eko 47. GAO.

3. Sentsibilizazioa

a) Sentsibilizazio jardunaldiak.

Foru Administrazioan sortutako azpiegitura etikoa indartzeko ezinbestekoa da Erakundearen zuzentasuna hedatzeko eta prebentziorako sistemak abiaraztea, haren edukien ezargarritasuna eta eraginkortasuna garatzen eta bermatzen dutenak, kargu publikoek baloreak, printzipioak, jokabide eta jarduera arauak egoki barneratzeko.

Horregatik, formazio edo sentsibilizazio bi jardunaldi egin dira 2016an zehar.

Lehenengoa 2016ko martxoaren 1ean egin zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregian, Foru Gobernuako Kontseiluak Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zuen egun berean. 2 orduz Sistemaren xedea diren kargu publikoei zuzendutako saio zehatza egin zen. Edukia eta atxikipen prozesua xehetasunez aurkeztu zen eta bertaratutakoaren artean sortu ziren zalantzak erantzun ziren.

Bigarren jardunaldia 2016ko apirilaren 29an egin zen, eta kasu honetan goi karguetara bakarrik ez, gainontzeko eragileetara ere ireki ziren, bereziki Udaleko ordezkarietara.

Ondoren zehaztuko den programarekin, jardunaldiak arrakasta handia izan zuen, eta 100 pertsona inguru bertaratu ziren.

“GIPUZKOARENTZAT GOBERNANTZA ERRONKA BERRIAK”

2016ko apirilaren 29a



2016ko apirilaren 29ko jardunaldia “Gobernantzaren erronka berriak Gipuzkoarentzat”.

9:00 Erakundearen irekiera.

Imanol Lasa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza eta Gizartearekiko Harremanetarako diputatua.

Juanjo Álvarez, EHuko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna eta Gobernantza Demokratikoko Institutuko idazkaria.

Josu Erkoreka, Administrazio Publikoko eta Justizia sailburua eta Eusko Jaurlaritzako bozeramailea.

Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu nagusia.

9:30 1. mahaia: Etika publikoaren eta gardentasunaren ordua: hedapena eta esanahia.

Etika publikoaren ordua. **Daniel Innerarity**, Filosofia politiko eta sozialeko katedraduna, IKERBASQUEko ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean eta Gobernantza Demokratikoko Institutuko zuzendaria.

Etika publikoa eta gardentasuna. **Belen Altuna**, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateko irakaslea, Filosofia Moraleko Saila.

Erakundearen zuzentasun sistemen esanahia eta hedapena. **Txetxu Ausín**. CSICeko (Ikerketa Zientifikoetako Goi Kontseilua) Etika Aplikatueto Unitateko zuzendaria.

10:15 Galderen txanda.

10:30 2. mahaia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema eta Eusko Jaurlaritzaren Etika Batzordea.

Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikoko Batzordearen esperientzia. **Elisa Pérez Vera**, Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikoko Batzordeko bokala.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun sistema. **Rafael Jiménez Asensio**, Pompeu Fabra Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko Irakaslea eta Tokiko Demokrazia eta Gobernu Fundazioko zuzendaria.

Tokiko Administrazioetan jokabide etikoaren ebaluazioa. **Juanjo Álvarez**, EHuko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko Katedraduneta Gobernantza Demokratikoko Institutuko idazkaria.

11:15 Galderen txanda.

11:30 Atsedena.

12:00 3. mahaia: Euskadiko Tokiko Erakundeen Lege berria: printzipio orokorrak eta gobernu irekia.

Euskadiko Tokiko Erakundeen Legea: garrantzia, helburuak eta etorkizuneko erronkak.
Peru Bazako, Eusko Jaurlaritzako Erakundeen Harremanetarako sailburuordea.

Euskadiko Tokiko Erakundeen Legearen gai nuklearrak. **Elixabete Etxanobe**, Eusko Jaurlaritzako Tokiko Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria.

13:00 Galderen txanda.

13:30 Agurra eta itxiera.

b) Web orria.

Hedapenerako ibilgailu ontzat hartu da ere Erakundearen Zuzentasun Sistemari dedikatutako webgune propio bat sortzea erakundearen atariaren barruan:
www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema

Bertan, Erakundearen Zuzentasun Sistema zein Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea aipatzen dira (bertan eskuragarri daudenak) eta Erakundearen Etika Batzorderako atal zehatza sortu da.

Azken atal honetan EEBren funtzio eta osaera zein kideen *curriculum vitae*ak zehazteaz gain, haren kontaktuetarako datuak adierazi dira eta kontsulta, kexa edo salaketak helarazteko bideak: telefonoa, helbide elektronikoa eta posta helbidea.

1. Eginkizunak
2. Osaera
3. Eraspakak

f t e

Eginkizunak

a) Oinarriak diren Kodeetan ageri diren balore, printzipio eta jokabide arauak hedatu, barneratu eta behar bezala betetzean direla bermatzea.

b) Balore, printzipio eta jokabide arauen araberakoak ez diren jarreretari aurrea hartu eta horiek sahestea, Foru Aldundiarren irudia eta giro etikoaren bermatzea.

c) Eraspak, txosten edo oharren bidez, sor daitezkeen zalantza, kontsulta eta dilema etikoak ebaztea.

d) Kexak edo salaketak jasotzea eta horiek bideratzea. Horrez gain, gobernu organoetako eginkizun proposamenduei buruzko datuak, berriak, erabakiek, baldin eta horiek guztiak dagozkion erabakiak hartzean eskumena badute.

e) Atalpean Gidak, Memoriak eta aldiari beharrezko txostenak osatzea organoaren jarduerari buruz, eta beharrezkoa bada, Kodeetan ageri diren edukia edo egokiztat jotzen diren neurriak aldatzea.

Erakundearen Etika Batzordearekin harremanetan jarri:

zuzentasuna@gipuzkoa.eus
Neritaren Informazio eta Arreta
Bulgazko Zentzua
Gipuzkoa Plaza s/g, 20004, Donostia

[Aldi batera inprimatu](#)

4. Jasotako gaiak

a) Laburpena

2016an EEBk 6 gai jaso ditu: Goi karguek egindako 5 kontsulta eta enpresa batek jarritako salaketa bat.

Azpimarratu behar dugu EEB honen gai askotan JJEKrekiko talka aztertzeaz gain beste arau batzuk ere aztertu behar izan direla, bai foru izaera edo izaera autonomikokoak baita estatu izaerakoak ere, urratu direlako edo interpretazioan laguntzaileak direlako:

- 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakundearen Antolaketa, Gobernu eta Administrazioa.
- 3/2015 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko sailak eta bere jarduera eremuak eta funtzioak zehaztekoa.
- 3/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1koa. Horren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru Sektore publikoaren Erakundearen Etika Batzordea sortu zen.
- 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interesen Gatazkena.
- Eusko Jaurlaritzaren Erregimen Juridikoko Kontseilaritza ordearen 124/2014 DDCLN txostena, Jokaera Kodea eta Kargu Publikoen Interes Gatazkak erregulatzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 LEGEAREN 22. artikuluan kargu publikoentzat ezarritako mugei buruzkoa.
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa. Horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartu zen.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatzen dituena.

Horien guztien artean azpimarratu behar dugu, adostutako ebazpenetan izan duen garrantziagatik, ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikoen Jokaera Kodea eta Interes Gatazkak Erregulatzen dituena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakundearen Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren arabera GFAko goi karguei ezarri ahal zaiena, bateraezintasun erregimenari dagokionean.

Ondorengo koadroan, kasu bakoitzean aztertutako aginduak eta egindako ebazpena laburbildu dugu.

	GAIA	JJEK	AZTERTUTAKO BESTE ARAU BATZUK	EBAZPENEA
01/2016	Bere Sailak jakinarazitako espediente baten aurrean bilkuran zinegotzi bezala egindako esku hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Interes eza [3.4.d] • Objektibotasuna [3.5.a eta b] 	<ul style="list-style-type: none"> • 7/1985 Legea³, 76. art., abstentziorako betebeharra • 6/2005 Foru Araua⁴, 47 eta 37. art., bateraezintasunak • 30/1992 Legea⁵, 28.2. art., abstentziorako arrazoiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Osoko Bilkuran parte hartzeko ez dago abstentziorako arrazoirik • Abstentziorako betebeharra, espedientean aurretik jakinarazteko
02/2016	Hizlari gisa parte hartzeagatiko konpentsazio ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Interes eza [3.4.f] 	<ul style="list-style-type: none"> • 3/2015 Foru Dekretua⁶, GFako Sailletako funtzioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du JJEK aurkaratzen
03/2016	Senide batek Udalei eta Sozietate Publikoari zerbitzuak ematea	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Interesik eza [2.2.4;3.4.b] • Osotasuna [3.2.e] • Objektibotasuna [3.5.b eta c] 	<ul style="list-style-type: none"> • 6/2005 Foru Araua⁴, 47 eta 37. art., bateraezintasunak • 1/2014 Legea⁷, 14.1 art., ondarea administratzeko bateragarritasuna, 22 eta 23. art. • 3/2011 Errege Dekretu Legegilea⁸, 60.1.g) art., Kontratatzeko debekua • 124/2014 DDCLN txostena⁹, kargu publikoen mugak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du JJEK aurkaratzen • Hala badagokio, enpresari dagozkion erabakiak hartzeko abstentzia
04/2016	Presidentea senidea duen erakunde batekin hitzarmena sinatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Interes eza [3.4.d] • Objektibotasuna [3.5.a eta b] 	<ul style="list-style-type: none"> • 30/1992 Legea⁵, 28.2. art., abstentziorako arrazoiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Abstentziorako betebeharra
05/2016	Administrazio Kontseilu bateko kide izendatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Interesik eza [2.2.4; 3.4.d,3.4.c] • Eredugarritasuna [3.3.i, 3.4.d] • Objektibotasuna [3.5.a) eta b)] • Betebeharrak eta konpromisoak aldi baterako ezartzea (7.5) 	<ul style="list-style-type: none"> • 1/2014 Legea⁷, 15.1.c) art. Jar-duera publikoekin bateragarritasuna; 18 eta 19. art., bateraezintasunak. • 30/1992 Legea⁵, 28.2. art., abstentziorako arrazoiak • 3/2016 Foru Dekretua¹⁰, 3.a), egokiak ez diren jarreraren prebentzioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du JJEK aurkaratzen, baina Administrazio Kontseiluko kide ez izatea gomendatzen dugu • Hala badagokio, enpresari dagozkion erabakiak hartzeko abstentzia • Itxi ondoren ez da enpresara itzultzea
06/2016	Objektibotasun balorea ez betetzea salatzea	-	-	<ul style="list-style-type: none"> • Ez onartua, JJEKren ezarpen eremutik kanpo dagoelako

³7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatzeko dituenak.

⁴6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakundearen Antolaketa, Gobernua eta Administrazioa.

⁵30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

⁶3/2015 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko sailak eta bere jarduerak eremuak eta funtzioak zehazteko.

⁷1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interesen Gatazkena.

⁸3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa. Horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu batekina onartu zen.

⁹Eusko Jaurilaritzaren Erregimen Juridikoko Kontseilaritza ordearen 124/2014 DDCLN txostena, Jokaera Kodea eta Kargu Publikoen Interes Gatazka erregulatzeko dituen ekainaren 26ko 1/2014 LEGEAREN 22. artikuluan kargu publikoentzat ezarritako mugei buruzkoa.

¹⁰3/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa. Horren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru Sektore publikoaren Erakundearen Etika Batzordea sortu zen.

Ikus daitekeenez, gehien ikusi diren baloreak Zintzotasuna eta Interesik eza izan dira, aztertutako gai guztietan kontuan hartu direnak. Goazen JJEKk horien inguruan oinarrizko balore gisa adierazten duena ikustera, ondoren horiei lotutako jokabide arau ezberdinen bidez garatuko direnak:

Zintzotasuna eta Interesik eza.

Foru kargu publikoaren jardunak interes publikoa guztiz betetzera eta gipuzkoar herritar guztien interesetara bideratuko du. Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, kargu publikoak dagokion aginteari edo, hala badagokio, Etika Batzordeari, berehala jakinarazi beharko dio. Egoeren edo ematen diren gomendioen arabera, ezin izango du parte hartu, zuzenean edo zeharka, erabakia hartzen edo dagokion organo edo prozeduran. Ezin izango du bere zintzotasuna zalantzan jartzen duen edo erabakiak hartzea edo bertan parte hartzea baldintzatzen duen edo baldintzatzen duenaren itxura ematen duen opari edo onurarik onartu. Horren gaineko zalantzarik izatekotan, eskumena duen organora helarazi beharko dio dagokion bideetatik.”

Eta balore hauei lotutako arau batzuk horrela diote:

“(…)

b) Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, kargu publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalko dio.

(…)

d) Interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak bere lanpostuko edo bere jarduera profesionaleko eremuko interesak eta berezko interes pribatuak edo izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek nolabaiteko harremana izan duten enpresa edo erakundeenak, aldi berean eman daitezkeen gaiekin lotutako erabakietan parte hartzen duenean.

e) Interes gatazka zantzua ematen da foru kargu publikoak bere eskumenekoak diren gaiekin lotutako erabakietan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonaletan, bere senideen interesetan edo berarekin lotutako hirugarrenean, pertsona horiek nolabaiteko harreman mota izan duten enpresa edo erakundeen interesetan, eragina ez dutela uste duenean, baina objektiboki jardun edo esku hartze horrek zuzenean eta modu larrian kaltetu dezakeenean herritarrek erakundeari buruz duten objektibotasun irudia.

(…)”

“Gatazka edo gatazka itxura” hori aipatzea da gai gehienetan astiroago aztertu behar izan dena (1/2016 3/2016, 4/2016 y 5/2016), gatazka posiblearen arrazoia guztietan berdina izan ez bada ere (senide harremana, lan harremana, interes publiko ezberdinak).

Lehen adierazi den bezala, 1/2014 Legea ere bereziki aipatu behar dugu, ekainaren 26koa, Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interesen Gatazkena. EEB honi bateragarritasun gaiak konpontzea ez badagokio ere, aipatutako Legearen 19. artikulua eskumena beste organo bati ematen diolako, eta bere jarduera eremua eta xedea ez denez, ezin dugu kasu bakoitzean ezar daitekeen indarrean dagoen erregulazioa ez ezagutu. Horregatik aztertu da adierazitako Legea, interes gatazka posibleak konpontzeko. Gai batzuetan Legeak ez du zalantzarako lekua utzi, artikuluetan EEBk jorratutako gaiaren jatorria berariaz jasotzen duelako; beste batzuetan ordea, interpretazio bat egin behar izan da araudi ezberdinarekin lotuz, JJEK beraren beste agindu batzuk barne.

1/2016 eta **4/2016** gaietan planteatutako prozeduretan parte hartzeko **abstentziorako betebeharra** adostu da. Lehenengo gaian bi kargu publiko gauzatzeko bateragarritasuna aitortu bada ere, bi interes publiko existitzeak kasu honetan abstentzioa agintzen duela ulertu da, espediente batean aurretik jakinarazteko; 4/2016 gaian, dagoen senide harremanak prozeduran abstentziora behartzen du ere.

Aldiz, **3/2016** gaian ulertu da **betebehar horretarako egoera ematen ez zela**, ahaidetasun harremana dagoen arren, Eusko Jaurlaritzaren Erregimen Juridikoaren Kontseilari ordearen txosten juridiko batean oinarrituz, EEB honek bere egiten dituen gogoetak dituena. **5/2016**an, bi kargu publikoak bateragarriak izanik eta nahiz eta ezar daitekeen araudia eta JJEK, **urratzen ez direla, abstentzioa gomendatu** da aurretik egondako lan harremana dela eta, eta interesdunaren lan etorkizuna bermatzeko ere. Azken bi gai hauetan gainera abstentzioa gomendatu da momenturen batean enpresa horiekin lotutako erabakiak hartu beharko balira.

Gainontzeko bi gaiei dagokienean, **2/2016an ez da JJEKren urraketa ikusi**, kargu publikotik at dagoen jarduera delako eta indarrean dagoen araudiaren arabera bateragarria delako. **6/2016** gaiarekin lotutako **salaketa** bakarra **ez da onartu** JJEKren eremutik kanpo dagoelako, GFaren zerbitzu tekniko batek idatzitako txosten bati lotuta dagoelako.

Ondoren, kasuen laburpena aurkeztuko dugu, EEBren webgunean osorik kontsultatu daitezkeenak <http://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-de-integridad/comision-de-etica>

b. Jorratutako gaiak.

01/2016, kontsulta, osoko bilkura batean, zinegotzi gisa, bere departamentuan irizpena eman zaion espediente bati buruz esku hartzea.

1/2016 gaia

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI (...) JAUNAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETAKO GAIA BAITA (...) KO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN ALDAKETA AURKEZTEN DEN OSOKO BILKURAN BERTAKO UDALEKO ZINEGOTZI GISA IZAN DEZAKEEN PARTAIDETZA, ESPEDIENTE HORREN GAINEKO NAHITAEZKO TXOSTENA EMAN BEHARKO BAITU, ONDOREN, BERAK ZUZENDARI KARGUA BETETZEN DUEN DEPARTAMENTUAK

2016ko maiatzaren 16an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB)

igorritako mezu elektronikoaren bidez interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusia bera, iritzia eskatzen dio EEBri, bere zuzendari karguaren eta (...)ko Udaleko zinegotzi karguaren artean gatazka sor litekeela uste duen egoera bati dagokionez

Mezu elektronikoan eskatzaileak adierazten du ezen bera zinegotzia den (...) ko Udalean aurreikusita dagoela osoko bilkuraren erabaki baten bidez Udalerriko arau subsidiarioak aldatzeko espediente bat abiatzea.

Hiri antolaketako arauak aldatzeko espedienteak (...) gaineko etorkizuneko afekzio batzuk aurreikusten ditu, eta eskatzaileak zuzendari nagusi kargua duen Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuaren nahitazko txostena eskatzen du horrek.

Esku artean dugun kontsulta interesdunak maila etikoko zalantza batzuk dauzkalako formulatu da. Horregatik, EEB honen iritzia ezagutu nahi du, Udalerriko arau subsidiarioen aldaketa posiblerako espedienteari dagokionez (...)ko Udaleko Osoko Bilkuraren botazioan izan dezakeen partaidetzari buruz, udal horretako zinegotzia baita, kontuan harturik baina gero ere agian parte hartuko duela, Foru Aldundian eskumena duen departamentuko zuzendari gisa, osoko bilkuraren botazioaren gai izango den espedientearen gaineko nahitazko txostena emateko.

EBAZPENA

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusia, (...) jaunak parte har dezake zinegotzi gisa, (...)ko Udalbatzarreko bozketan, Udalerriko arau subsidiarioak aldatzeari dagokion gaiari dagokionez, kasu honetan ez direlako ematen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusten dituen parte ez hartzeko zioak.

Bigarrena.- Udalbatzarreko gai horren inguruan, gerora (...) jaunaren parte hartzeari dagokionez, aipatu udalbatzarreko espediente txostena eman behar duen Foru Aldundiko departamentuko zuzendari nagusia den heinean, abstenitzea proposatzen da Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauen muina eta xedeei jarraiki. Ondorio honetarako, hierarkikoki nagusi denari idatzi bat aurkeztu beharko zaio.

02/2016, kontsulta, hizlari gisa aritzeagatiko diru ordaina jasotzeari buruzkoa.

2/2016 gaia

EBAZPENA, (...)JAUNAK, (...)DEPARTAMENTUKO (...)ZUZENDARINAGUSIAK JARDUNALDI TEKNIKO BATEKO HIZLARI GISAKO PARTAIDETZARI DAGOKION DIRU ORDAINA KOBATZEARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.

2016ko maiatzaren 17an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) aurkeztutako idazkiaren bidez, interesdunak, (...) Departamentuaren (...) zuzendari nagusiak,

EEBri kontsulta egiten dio, IVAP eta EUDELeK (...) inguruan antolatutako (...) izeneko jardunaldi teknikoan hizlari gisa parte hartzeagatiko diru ordainaren inguruan. Hitzaldiaren gaia (...) da.

Idazkia amaitzeko, adierazten du ezen bere ustez arlo horretan duen esperientzia profesionalagatik gonbidatu dutela hitzaldia ematera, eta Jardunaldian izango duen parte hartzea eta IVAPek ezarrita daukan diru ordaina kobratzea onargarriak direla, ez diotelako negatiboki eragiten beren eginkizunen garapenari, eta ezin diotelako kalterik egin Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudiari, are gutxiago (...) izango dela kontuan hartuta, eta jorratuko dituen gaiek ez dutela ukituko ez (...) ez (...), ezta (...).

Interesdunakegoki deritzo EEBhoni kontsulta egiteari, jakitearren hitzalditik ondorioztatzen den diru ordainak urratzen ote duen erakundearen zuzentasunarekin lotutako jokabide araei buruzko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f) araua, jarduerak zintzotasun eta eskuzabaltasun balore zehatzekin bat garatzeari buruzkoa

EBAZPENA

Lehena.- Interesdunak ez du urratzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea, IVAP eta EUDELeK (...) inguruan antolatutako (...) izeneko jardunaldi teknikoan (...) izeneko hitzaldia emateagatiko diru ordaina jasotzea onartzen badu, gaur egun duen zuzendari kargu publikotik aparteko noizbehinkako jarduera bat delako.

Bigarrena.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f) araua aplikaturik, erabakitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko Aplikazio Gidan jasotzea ez dela Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea urratzen diru ordaina hartzea onartzen denean gai bateko aurretiko aditu izaerari lotutako hitzaldi bat emateagatik, betiere hitzaldi emate hori ez dagoenean une horretan betetzen ari den kargu publikoari loturik.

03/2016, kontsulta, senitarteko batek Gipuzkoako Foru Aldundian zerbitzuak emateari buruzkoa.

3/2016 gaia

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI DEN 8...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETARAKO GAIA BAITA ZUZENDARIAREN SENARRA JABEKIDE DEN ENPRESAK BALIZKO HARREMAN PROFESIONALA IZAN DEZAKEEN HAINBAT UDALEKIN ETA (...) FORU ELKARTEAREKIN.

2016ko ekainaren 23an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) mezu elektroniko bat bidali zion interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusiak. Bertan, iritzia eskatzen dio EEBri jakiteko bere senarra jabekide den enpresa pribatuak harreman profesionala eta komertziala izan ote ditzakeen hainbat udalekin eta Departamentuari atxikia dagoen (...) Foru Elkartearekin.

Mezu elektronikoan interesdunak adierazten du bere senarra (...) enpresaren jabekide dela, beste pertsona batekin batera, eta enpresak teknologia berrien inguruko aholkularitza eskaintzen duela.

Era berean adierazten du (...) zuzendari nagusi izendatu aurretik, senarraren enpresak harreman profesionala eta komertziala izan duela hainbat administrazio publikorekin eta horiek lotura duten entitateekin (...), eta enpresaren proiektuen artean dagoela zenbait zerbitzu ematea Gipuzkoako udalerrri desberdinei. Hain zuzen ere, enpresa harremanetan jarri da hainbat udalekin eta eman dieten erantzuna izan da eskaintzen dituzten proiektu horiek (...) foru sozietate publikoaren bidez kudeatu ohi direla.

Kontsulta hori egiten da interesdunak jokatu nahi duelako Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere alor publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren arabera, eta horretarako jakin nahi du zein den EEBren iritzia senarraren enpresak Gipuzkoako udalekin eta (...) foru sozietate publikoarekin harreman profesionalak edo komertzialak izateari buruz.

EEBren ebazpena ezagutu arte, senarraren enpresak ez du aurrera egingo Gipuzkoako udalekin eta (...) foru sozietate publikoarekin izan ditzakeen harreman profesional edo komertzialetan.

EBAZPENA

Lehena.- Interesdunak Gipuzkoako Foru Administrazioaren Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen arabera jokatu du.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen arabera, printzipioz, ez zaio galarazten (...) enpresari edozein izaerako itun edo kontraturik sinatzea Gipuzkako Lurralde Historikoko sektore publikoarekin, edo enpresa horien azpikontratistak diren edota sektore publiko horretako entitatearen baten diru laguntzak jasotzen dituzten enprekin; ez eta Lurralde Historikoko udalekin ere, baldin eta kontratazio alorrean indarrean dagoen legedia betetzen bada kontratu horiek egitean.

Hirugarrena.- Kontsulta egin duen zuzendariak erabakiren bat hartu beharko balu (...) enpresa alderdi interesatu den gaien inguruan, edo erabaki horrek bere inguruko interesei zuzenean edo zeharka eragin diezaiekeenean, abstenitu egin beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua xedatutakoa, eta Gipuzkoako Foru Administrazioaren Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.2.e), 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak ezarritakoa betez.

Laugarrena.- Abstentzioak Gipuzkoako Foru Administrazioaren Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak exijitzen dituen berme guztiak bete ditzan, ebazpen honen hirugarren atalean aipatzen diren gaiak hierarkikoki interesdunaren mende ez dauden organoek kudeatu eta ebatzi behar dituzte.

04/2016, kontsulta, entitate batekin hitzarmena sinatzeari buruzkoa, entitate, horretako lehendakaria bere senartekoa baita.

4/2016 gaia

EBAZPENA, (...) ZUZENDARI NAGUSI DEN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETARAKO GAIA BAITA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA (...) ERAKUNDE ARTEAN SINATUKO DEN HITZARMENAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA BERE ZUZENDARITZAPEAN EGITEK AUKERA, ERAKUNDE HORREN LEHENDAKARIA INTERESATUAREN KOINATUA IZANIK.

2016ko uztailaren 1ean foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) mezu elektronikoa bidali zion interesdunak, (...)ko zuzendari nagusiak. Bertan, iritzia eskatzen dio EEBri, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta (...) erakundearen artean sinatzea aurreikusten den hitzarmena bere zuzendaritzapean kudeatu eta jarraipena egiteko aukeraren inguruan, jakinda erakunde horren lehendakaria interesdunaren koinatua dela.

Mezu elektronikoa interesdunak jakin nahi du ea zuzentasunaren ikuspegitik bateragarria den hitzarmen horren kudeaketa eta jarraipena bere zuzendaritzapean egitea, hots, (...)ko Zuzendaritzatik, eta, hala izanez gero, ea hitzarmen horrekin zerikusia duten gaietan parte hartzetik abstenitu beharko lukeen.

EBAZPENA

Lehena.- (...)ko zuzendari nagusi (...)jaunak ez du parte hartu behar (...)alderdi interesatu den gaietan, ez eta bere interes zirkuluan eragin zuzena edo zeharkakoa izan dezaketen gaietan, kontuan hartuta, batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua, eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak.

Horretarako, abstentzio idatzia aurkeztu behar dio nagusi hierarkiko hurrenari.

Bigarrena.- Abstentzioak Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak exijitzen dituen berme guztiak bete ditzan, ebazpen honen lehenengo apartatuan aipatzen diren gaiak hierarkikoki interesatuaren mende ez dauden organoek kudeatu eta ebatzi behar dituzte.

05/2016, kontsulta, Administrazio Kontseilurako kide izendapenari buruzkoa.

5/2016 gaia

EBAZPENA, (...) KO DIPUTATU (...) K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETAKO GAIA BAITA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ORDEZKARI GISA (...) ENPRESAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAN IZAN DEZAKEEN PARTAIDETZA, ENPRESA HORRETAN LAN EGITEN BAITU FORU DIPUTATU IZENDATU ZUTEN ARTE.

2016ko uztailaren 6an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) igorritako mezu elektronikoa bidez interesdunak, (...)ko foru diputatuak, iritzia eskatzen dio EEBri; izan ere, (...) enpresako administrazio kontseiluko kide izendatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa –Aldundiarena da enpresa horren kapital sozialaren % 50-, baina interesdunak enpresa horretan lan egin du foru diputatu izendatu zuten arte.

Mezu elektronikor horretan, eskatzaileak azaldu du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak 3.3.i) arauan xedatzen duela foru kargu publikoek elkarreetan eta bestelako entitateetan kargu organikoak edo gerentzia karguak bete ahal izango dituztela, baldin eta funtzio horiek betetzean interes gatazkarik sortzen ez bada edo interes gatazkarik sortzen ez dela badirudi. Eta horrelako funtzio edo ardurarik betez gero, hori berme organoari jakinarazi beharko zaiola lehenbailehen, era horretan, azken horrek dagozkion neurriak har ditzan.

Hain zuzen arau hori betetzeko egin du kontsulta interesdunak, etikari lotutako zalantzak sortu baitzaizkio, eta erakundearen zuzentasun balioak babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Adierazi du, gainera, jakin nahi duela ea esku hartu dezakeen, (...)ko foru diputatu gisa, (...) alderdi interesatu den erabakietan, edo, bestela, abstenitu egin beharko lukeen, eta, azkenik, ea foru diputatu kargua utzi ondoren itzul daitekeen aipatu enpresarekin lanharremana mantentzera.

EBAZPENA

Lehena.- Foru diputatu kargua eta (...) enpresako kontseilari kargua batera betetzeagatik ere, interesdunak ez du urratzen Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Hala ere, 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoaren 3.a) artikulua ematen dizkion ahalmenak baliatuz, Batzorde honek proposatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren zuzentasun kultura sustatzeko neurri egokiena delako, interesdunak parte ez hartzea (...) enpresako administrazio kontseiluan, interes gatazka errealak edo itxurazkoak saihesteko xedez. Beraz, EEBk proposatzen du administrazio kontseilutik dimititzea.

Bigarrena.- Eskatzaileak (...) alderdi interesatu den gairen batean erabakiren bat hartu behar izango balu, edo bere interes zirkuluan eragin zuzena edo zeharkakoa izan 10 dezakeen gairen baten inguruko ebazpena eman behar izango balu, abstenitu egin beharko da, betetzeko, batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak.

Abstentzioak Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak exijitzen dituen berme guztiak bete ditzan, ebazpen honen apartatuan aipatzen diren gaiak hierarkikoki interesdunaren mende ez dauden organoek kudeatu eta ebatzi behar dituzte.

Hirugarrena.- Batzorde honek proposatu bezala, interesdunak (...) enpresako administrazio kontseiluko kide izateari uzten badio eta enpresa alderdi interesatua den gaietan abstenituko balitz, foru diputatu kargua utzi ondoren itzul daiteke enpresarekin lan-harremana izatera, agintaldian zehar kargua dela eta zuzeneko harremanik izan ez duelako eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea urratu ez duelako.

6/2016 gaia

EBAZPENA KONTRATAZIO PUBLIKOKO PROZESU BATEAN ((...) ESPEDIENTEA) OBJEKTIBOTASUN BALIOA USTEZ URRATU IZANARI BURUZ FORMULATU DEN SALEKTA ANONIMOAREN INGURUKOA.

2016ko uztailaren 8an posta elektronikoko bat bidali zion interesdunak Erakundearen Etika Batzordeari (EEB), eta bertan eskatzen zion esku har zezala, aztertzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko eta foru sektore publikoko kargu publikoen eta langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 2.2.5 arauan aipatzen den objektibotasun balioa urratu ote den (...) tako Departamentuaren (...)zk. Kontratazio espedientean.

Posta elektronikoko horretan, eskatzaileak adierazten du berak ordezkatzeko duen enpresak eskaintza bat aurkeztu zuela Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehiaketa batean, (...)tako Departamentuaren aipatu kontratazio espedientean hain zuzen. Azkenean, kontratua ez zitzaion enpresa horri esleitu eta, beraz, gorako errekurtsioa aurkeztu zuen Departamentuko foru diputatuaren aurrean.

Aurkeztutako idatzian aipatzen da, aipatu kontratazio prozeduran, (...) ko zuzendari nagusiak hartzen dituen erabakiak arrazoitzen dituen irizpen teknikoak ez duela betetzen kontratazio publikoko prozesuetan eskatzen den objektibotasuna, bereziki baldintza agirietan taldeentzat exijitzen den esperientziari dagokionez. Idatzi horretan dio, halaber, eskaintzetan proposatutako talde teknikoak balioesterakoan baldintza agirietan jaso ez diren irizpideak hartzen direla kontuan txostenean.

Azkenik, idatzian adierazi du berak ordezkatzeko duen enpresak emandako zerbitzuei buruzko informazio guztia eta garrantzitsua ez dela kontuan hartu, eta horregatik ondorioztatu dela “hiru enpresa lizitatzailleek dutela laguntza emateko nahikoa ezagutza”.

EBAZPENA

Aurkeztutako salaketa ez onartzea, Gipuzkoako Foru Administrazioako eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetako kargu publikoen nahiz langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen aplikazio esparrutik kanpo geratzen den txosten tekniko bati buruzkoa delako.

5. Ezarpen gida

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta JJEKren lehenengo urtearen ondoren gogoeta batzuk egin behar ditugu. Ia behartuta gaudela esango genuke, bai jasotako kontsultengatik baita sozietateak exijentzietan zein Administrazioak jardunetan (zuzentasunaren aldeko apustua egin dutenak eta pixkanaka euren jokabide kode propioak onartzen hasi direnak) egindako etengabeko aurrerapengatik. Hori dela eta, GFaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari lotutako gogoeta eta azalpen batzuk ematea egokia litzateke.

Gainera, hau 3/2016 Foru Dekretuaren 3.e) atalean berariaz jasotzen da. EEBren funtzioen artean JJEKren Ezarpen Gida egitea jasotzen du, jokabide arauak zehazten dituen ziurtasun enpirikoetatik eta EEBk hartzen joan dituen ebazpenetatik abiatuta.

Ondoren 2016ko lehenengo ekitaldi honetan egin ditugun gogoeta batzuk adieraziko ditugu.

a) EEBren funtzionamenduari dagokionez.

3/2016 Foru Dekretuan ez da aipatzen EEBk ebazpena emateko duen epea. Kontuan hartzeko datu garrantzitsua da, jasotako lehenengo gaian alderatu ahal izan genuena. Bertan, Udal baten Osoko Bilkuran zinegotzi bezala parte hartzeko egokitasuna zalantzan jarri zen, bi aste geroago egin beharrekoa. Interesdunak EEBren iritzia jakin behar zuen Osoko Bilkura izan aurretik, nola jardun jakiteko. Beraz, lehenengo kasua zenez, EEB honek azkartasun bereziarekin jardun behar izan zuen ebazpena eraginkorra eta praktikoa izateko.

Hori dela eta EEBren batzar eratzailan, 2016ko maiatzaren 26an egin genuena, ordurako jaso genituen lehenengo bi gaiei buruz hitz egin genuen, ebazpenak emateko epe zehatza ezartzeko egokitasunari buruz eztabaidatu genuen, bai kontsultak ebazteko prozedurari dagokiona gehiago zehazteko baita erabakiak hartzeko azkartasuna bermatzeko ere, eraginkorrak izateko.

EEBren barruan eztabaidatu ondoren, gaia jaso eta 15 egun balioduneko epea ezartzea erabaki zen, gaiaren konplexutasunak aukera ematen zuenean, eta publikoa egitea izan daitezkeen interesdunek kontsulta denboraz egin ahal izateko.

b) JJEKren jokabide arauai buruz.

- Egiaztatu da 3.3.k) artikuluan ezarritakoa mugatu behar dela, honakoa dioena:

K) "Foru kargu publikoek ez dute erakunde kreditu txartelik izango. Kargua dela eta egindako edozein gastu aldeztatik ordainduko du foru kargu publikoak, eta aurrerago, funtzioak betetzen dituen erakundeak, gastua ikuskatu ondoren, hori ordainduko dio foru kargu publikoari. Hala ere, erakunde joan-etorrietan edo antzeko izaerako ekintzetan aurreko arauaren salbuespenak egin ahal izango dira, behar bezala justifikatuta."

Egungo gobernu taldeak hartutako lehenengo erabakietako bat, JJEKn bertan islatu zena jokabide egokiaren arau bezala (eredugarritasunaren balorearen arabera), erakunde kreditu txartelak ordainketa instrumentu bezala ezabatzea izan zen. Nolanahi ere, beharrezkoa iruditzen zaigu artikulua literaltasuna bi zentzutan mugatzea.

Lehenik eta behin, artikulua literaltasunak ez du gastu mota zehazten, “bere kargua dela eta egindako edozein gastu” bakarrik aipatzen du. EEB honen ustez bertan adierazitako gastuak, erakunde kreditu txartelarekin ordaindu ezin direnak, bidaiei, lekualdatzei edo kargu publiko gisa egindako jardueraren kudeaketatik sortutako bezala jo behar dira (ordezkaritza gastutzat jo daitezkeenak), egoki justifikatuta badaude ordaina hartzeko eskubidea izango duela, eta beraz, kargu publikoak aurrez ordaindu beharko duena.

Bigarrenik, ezarritako arauaren salbuespenak (behar bezala justifikatuak) aurreikusten dira. Uste dugu JJEK idatzi zen unean irekita utzi nahi izan zitzaizela horien erabilera erabat justifikatuko luketen etorkizuneko egoera posibleei. Nolanahi ere, EEB honek uste du salbuespenak ahalbidetzea, behar bezala justifikatuak izanagatik ere, arriskugarria izan daitekeela eta salbuespena arau bilakatzea ekar lezakeela; horregatik, ezabatzea proposatzen dugu.

- Ezinbestekotzat jotzen da isiltasun administratiboa ekiditeko konpromisoa zehaztea.

Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko 2014/4 Foru Arauak, otsailaren 6koak, informazio publikorako sarbide eskubideari buruzko II. kapituluaren 20.2 artikuluan ezartzen du “eskaeraren ebazpena hura jaso denetik hilabeteko epean jakinarazi behar dela”.

Bestalde, 26/2005 Foru Dekretuak, Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituenak, 15. artikuluan adierazten ditu kontsultei, kexei, iradokizunei eta eskaerei erantzuteko legezko epeak (30 edo 45 egunekoak).

Horren bidez, berariaz ezarrita geratzen dira Foru Administrazioak bitarteko formalen bidez jasotzen dituen eskaerei (mota desberdinetakoei) erantzuteko dauzkan legezko epeak.

Dena dela, bitarteko informalak erabiliz (formalki identifikatzeko beharrik gabe) iritsi diren kontsulta ugari ere badago. Kontsulta horiek batik bat posta orokorraren bidez jaso dira, eta ez dute erantzuna emateko epe jakinik; horrek isiltasun administratiboa ekar lezake eta, beraz, herritarren gorabeherak edo eskaerak ebatzi gabe utzi.

Egoera horiek ekiditeko xedez, ezinbestekotzat jotzen dugu foru administrazio gisa herritarren eskaera guztiei erantzuteko, horiek ebazteko eta jakinarazteko daukagun konpromisoa indartzea. Horren bidez, herritarrekiko harremana ardatz duen gobernu eredu berri bat sustatzearen alde egin nahi da, herritarrekiko hartu-eman indartu, eta, aldi berean, foru administrazio langileen profesionaltasunaren isla bihurtu.

Hori dela eta, proposatzen dugu 5.7.e) puntua berridaztea, eta, aldaketaren bidez, edozein eskaerari erantzuteko konpromisoa indartzea.

- Jorratutako gaien analisisan aurretik adierazi den bezala, Kargu Publikoen Jokabide kodea eta Interes Gatazkak erregulatzen dituen 1/2014 Legearen analisiak garrantzi berezia izan du, besteren artean bateraezintasun erregimena erregulatzen duena. Gertakari hau 6/2005 Foru Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernua eta Administrazioari buruz egiten duen igorpenarekin batera eman da.

Legea jorratutako 6 gaietatik 4 gaietan aztertu behar izan da, kontsultak jaso ziren idatzietan Lege horren betetzea zalantzan jartzen ez bazen ere, baizik eta JJEKren inguruko zalantzak ziren. Horrek goi karguek Lege hori existitzen zela edota zuen ezarpena ezagutzen ez zutela edo gutxi ezagutzen zutela agerian uzten du. Horrek, hasiera batean, JJEK beraren aipamenean bat egitea errazten du.

Hala ere, Foru Arauak Legea jotzen du bateraezintasun kasuetan baina diputatu nagusiaren, foru diputatuen eta zuzendari nagusiaren kasuan. Beraz, ezarpen eremua ez da berdina bi kasuetan. Izan ere, JJEK bi kasu horietan ez ezik honakoetan ere ezar daiteke:

- Foru sektore publikoaren erakundeetako gerenteak.
- Foru sozietate publikoetako Administrazio Kontseiluetako kideak.
- Foru Aldundira atxikitako kontsorzioetako gobernu organoetako kideak.
- Arauan edo izendatzean aurrekoei parekatutako kargu publiko guztiak.
- Aholkularitza funtzioak dituzten aldi baterako langileak.

Horregatik, EEB honek jasotzen dituen gaiak kasu bakoitzean aztertzea aukeratu dugu JJEK bera aldatu gabe, ezarpen gidan aipatzen badugu ere.

Ondorengo taulak 2016¹¹ Ezarpen Gida jasotzen du:

GAIA	AKORDIOA
<p>3/2016 Foru Dekretua, Martxoaren lekoa, 7) artikulua</p> <p>JJEKren 3.3.k) artikulua</p>	<p>9. Kontsulta, kexa edo salaketak ebazteko epea 15 egun baliodun izango da.</p> <p>Idazketa berria: "Foru kargu publikoek ez dute erakunde kreditu txartela izango bidaiek, lekualdatzeek edo kargu publiko gisa egiten duten jardueraren kudeaketak sortutako gastuak ordaintzeko. Kargua dela eta egindako edozein gastu aldeztetik ordainduko du foru kargu publikoak, eta aurrerago, funtzioak betetzen dituen erakundeak, gastua ikuskatu ondoren, hori ordainduko dio foru kargu publikoari.</p>
<p>JJEKren 5.7.e) artikulua</p>	<p>Idazketa berria: "Herritarrekiko harremanetan, entitate publiko eta pribatuek, kargu publikoek aktiboki eta arretaz entzungo dituzte pertsona edo entitate bakoitzak helarazten dituen eskaerak eta jarrerak, eta komunikazio egokiaren bidez emango diete bide; nolana ere, hala dagokionean, hura onartzeko ezintasun materiala arrazoitu daiteke".</p>

¹¹ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema aldatuko da.

Erakundearen Etika Batzordearekin harremanetan jarri:

zuzentasuna@gipuzkoa.eus

Herritarren Informazio eta Arreta Bulego Zentrala. Foru Jauregia

Gipuzkoa Plaza z.g. 20004, Donostia

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa